



@@@BEHIN-BETIKO EBAZPENA, 2021ko azaroaren 12koa, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariarena, zeinaren bidez ebazten baita unibertsitatez kanpoko heziketa – prestakuntza-zikloak alde batera utzita – ematen duten itunpeko ikastetxe pribatuei eta Hezkuntza Sailaren mendekoak ez diren ikastetxe publikoei egindako deialdia, hezkuntza bikaintasuneranzko prestakuntza-proiektuak egin ditzaten 2021-2022 ikasturtean. Curriculuma aberasteko proiektuen modalitatea@@@

Hezkuntzako sailburuaren 2021eko ekainaren 30eko Aginduak (uztailaren 22ko EHAA) zehaztu zuen zein diru-laguntza jasoko zuten itunpeko ikastetxe pribatuek eta Hezkuntza Sailaren mendekoak ez diren ikastetxe publikoek, unibertsitatez kanpoko heziketa – prestakuntza-zikloak alde batera utzita – ematen dutenek, 2021-2022 ikasturtean hezkuntza bikaintasuneranzko prestakuntza proiektuak eginez gero.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, proiektu guztiak aztertu ondoren, 2021eko ekainaren 30eko Aginduan ezarritakoarekin bat etorriz, eta ebaluazio-batzordeak proposatuta, Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntzako zuzendariak 2021eko urriaren 21ean eman zuen deialdiaren BEHIN-BEHINEKO EBAZPENA.

2021eko ekainaren 30eko Aginduaren 14. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, behin-behineko ebazpena elektronikoki jakinarazi zitzaizen interesdunei, eta hamar eguneko epea ezarri zen ikastetxe interesdunek egoki irizitako erreklamazioak aurkez zitzen.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, horietako bakoitza aztertu eta gero, ebaluazio-batzordeak behin betiko ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariari, 2021eko ekainaren 30eko Aginduan ezarritakoaren arabera,

#### EBATZI DUT:

Lehenengoa.- I. eranskinean zerrendatutako ikastetxe-eskatzaileri zehaztutako diru-hornidurak esleitzea, 2021-2022 ikasturtean beren Curriculuma Aberasteko-proiektuak egin ditzaten. Diru-laguntzak bi alditan ordainduko dira; lehenengoa, 2021ko ekitaldia bukatu baino lehen.

Bigarrena.- Aipatutako Ikastetxe horiek deialdiko 17. artikuluan ezarritako betebeharrak beteko dituzte eta Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzarekin eta unibertsitatekin lankidetzan arituko dira, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduatutako praktiketako ikasleak onartuz, bai eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntzako Unibertsitate Masterra ikasten diharduten praktiketako ikasleak ere, etorkizuneko irakasleak ikastetxe berritzaileetako benetako hezkuntza praktiketan integra daitezten laguntze aldera.

Hirugarrena.- Onartu ez diren eskaeren zerrenda argitaratzea (II. eranskina), ukatzeko arrazoiak adieraziz. Haien kodeak III. eranskinean daude deskribatuta.

Laugarrena.- Ikastetxeek ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute, Hezkuntzako sailburuordearen aurrean, hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko azaroaren 12an  
Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren  
zuzendaria.  
AMAIA AGIRRE PINEDO





## I. ERANSKINA

2021-2022 ikasturterako Curriculuma Aberasteko-proiektuak  
dauzkaten ikastetxeentzako diru-laguntzak

Lurraldea	Kodea	Ikastetxea	Proiektua	Diru-laguntza
Bizkaia	015833	CPES Otxarkoaga BHIP	Mirando a cada persona	2.000,00
Araba	010223	CPEIPS Niño Jesús HLBHIP	Proyecto: INJENIA enriquecimiento curricular	3.000,00
Bizkaia	014844	CPEIPS Ayalde HLBHIP	Por la equidad en el aula	1.000,00
Araba	010540	CPEIPS Geroa Waldorf Eskola HLBHIP	Atención a la diversidad desde las ciencias naturales	3.000,00



## II. ERANSKINA

## Onartu gabeko Curriculuma Aberasteko-proiektuak

Lurraldea	Kodea	Ikastetxea	Proiektua	Baztertzeko arrazoia
Araba	010199	CPEIPS La Milagrosa HLBHIP	Fase de consolidación del aprendizaje cooperativo	2. kodea
Araba	010616	CPEIP NC Learning Investigation Center HLBHIP	Somos emociones	2. kodea
Gipuzkoa	012330	CPEI José Arana Ikastola HHIP	Eguneroko dinamikan hezitzaileak izan behar duen rola inguruko formazioaren eta hausnarketaren jarraipena.	2. kodea
Gipuzkoa	012331	CPEPS Almen Ikastola LBHIP	Eraldaldaketa pedagogikoan Proiektu Bidezko ikaskuntzaren ebaluazioan oinarritutako hobekuntzak txertatzea.	2. kodea
Gipuzkoa	012345	CPEIPS San Frantzisko Xabier HLBHIP	Konpetentzia matematikoa lantzeko INNOVAMAT metodologiaren inguruko prestakuntza	2. kodea
Gipuzkoa	012346	CPEIPS Gaztelupe-Arimazubi Ikastola HLBHIP	Hizkuntzen trataera integraturako metodologiaren inplementazioaren jarraipena: Piktoidazketaren jarraipena	2. kodea
Gipuzkoa	012347	CPEI Ume-Zaintza Ikastola HHIP	Errespetuzko komunikazioaren eta hizkuntzaren ekologiaren ikuspegitik nola eragin ikasleen euskararen erabileran.	2. kodea
Gipuzkoa	012375	CPEIPS Usabalgo Laskorain Ikastola HLBHIP	DBH ZIENTZIA	2. kodea
Gipuzkoa	012395	CPEI Basabeazpi Ikastola HHIP	Bitariko ikaskuntzarako prestakuntzaren jarraipena.	1.kodea
Bizkaia	014732	CPEPS Lourdesko Ama LBHIP	Ikastetxe, ingurune, bizitza eta planeta garbi bat lortzeko bidean proiektuaren jarraipena	2. kodea



### III. ERANSKINA

#### Ukapenaren zergatiei dagozkien kodeen deskribapena

1 kodea: Eskaera ez da behar bezala eta epean aurkeztu egoitza elektronikoan, deialdiak ezartzen duen bezala, (10.2 artikulua).

2 kodea:.. Curriculuma aberasteko proiektuak ez du betetzen deialdi-aginduaren 2.artikulan ezarritako bi baldintzetako bat..